



ANDIAKO PAGADI, ARRASO ETA HARIZTIETAN ZEHAR GOZAMENERAKO PAISAI BATEAN...

Ibilbidea: Goñi – Ikomar – Iturgoiengo Trinitate (1227 m) – Mugaga (1208 m) – Lezaun

Goñi (878 m) – Bixkarluz lepoa (1127 m) - El Pelotón bordak (1007 m).- Goñi herriaren goialdean, Ziriako Deunaren eliza zaharraren ondoan, ipar-ekialde norabidea hartzen duen bide zabal batean emango diogu hasiera zeharkaldiari. Mustilligorri parajea kanadar pasabide batera iritsitakoan bidegurutze bat topatuko dugu. Ezkerrerantz joango gara antzinen asfaltatuta eta gaur egun egoera txarrean aurkitzen den bidetik. Gure aurrean Trekuako maldak eta pagadiak ditugu. Bide hau jarraituz Migel Deunaren baselizara helduko gara eta honen ondoan bukatzen da asfaltoa. Goñiren gainean dauden pagoen artean azaltzen den baseliza xumea da.

Antzinako harbide batetik pagadian barneratu eta gutxira Bixkarluzeko lepora ailegatuko gara. Bidea ixten duen alanbre-hesia gainditu ondoren, pagadi ederrean behera suabe-suabe doan bidea jarraituz gero lautada txiki batean putzu bat aurkituko dugu.

Putzua ezkerrerantz inguratuz Ingiri sakonean sartu eta aurrera jarraituko dugu. Pagaditik irteterakoan borda baten aurrien ondora iritsiko gara. Orain pagadiak Andiaiko arraso zabalei uzten die protagonismoa. Eskuinerantz joan behar gara, laster Urdanotz borda multzoen aurrietan izango gara. Eskuinean dagoen alanbre-hesi ondoko zidor estua jarraituko dugu, eta batzuetan, bidea ixten duten elorriak saihesteko tarte txiki batzuetan maldatik joan beharko gara. Laster El Peloton borda multzoen aurrietara iritsiko gara. Andiaiko mendizerran artzain jarduerak iraganean izan zuen garrantzia adierazten digute Urdanotz eta El Peloton borda multzo hauek.

El Peloton Bordak (1007 m) – Ikomar (1027 m) – Iturgoiengo Trinitate (1227 m).- Aurrera joko dugu zabalagoa den bidetik Kofradia bordaraino (artzain eraikin zirkularra). Bere ondoan borda handi baten aurriak daude.

KONTUZ!!! Hemen Ingiri sakona uzten dugu. Borden ondoan dagoen ate metalikoa pasatu eta aurrean dugun malda zuzenean igo, ezkerrean txabola bat utzi eta gorantz jarraituko dugu. Orain eskuinean malda gainean ikusten den txabola bakarti baterantz joango gara. Hegiaren bizkarrera iritsi eta bertatik Ikomarreko ibarra eta baltsa ikusiko ditugu.

Arrasoetatik gozo-gozo, Ingiriko bidea izena duen bidetik, baltsarantz jaitsiko gara. Ezkerretik inguratu eta ondoan dagoen aldapatxo igoko dugu. Orain ezkerrerantz gure aurrean zabaltzen den sakon txikiaren barrenaren gora joango gara. Aurrean Trinitateko Gainak altxatzen dira. Lautadatxo batera iristerakoan ezkerreko sakon txikitik jarraituko dugu goiko lepora iritsi arte. Gure atzean Andiaiko arraso zabalak irekitzen dira eta ikusmugan Beriain eta Satrustegiko mendizerraren harresia altxatzen da.

Lepoan ezkerrean biratu eta Trinitateko Gainetara doan zidorra hartuko dugu. Caballero leizera iritsiko gara, ganadu eta ibiltariak babesten dituen hormatxo batek inguratzen du. Oraindik zertxobait igotzea falta zaigu Iturgoiengo Trinitateko Gainean eta baselizan (1127 m) egoteko. Tontor zabal eta baseliza hauek Andiaiko hegoaldean kokatuak, arrasoak, Lezaun eta Deierriko lurak oinperatzen dituzte.

Iturgoiengo Trinitate (1227 m) – Mugaga (1208 m) – Lezaun (822 m).- Iturgoiengo Trinitatetik hego-ekialderantz dagoen lepora jaitsiko gara eta aurrez aurre dugun malda igoko dugu. Pago batzuen artean, zoru karstiko batetik, PR markak jarraituz eta ia desnibelik gabe Mugagako (1208 m) erpin geodesikora eta buzoira iritsiko gara.

PR markak jarraituz beherantz joango gara. Hasiera batean hego norabidean joango gara, baina malda tentetzen denean zidorrak hego-ekialderantz biratzen du, zertxobait beherago dagoen putzu bat eskuinean utzita. Pista zabaleraino jaitsi eta gure ezkerrean dugun bihurtze itxi batean sakonetik behera doan bide balizatua hartuko dugu. Hasieran pago artean doa, PR markak jarraitu behar dira. Bidea zidorra bihurtzen da, pagoek haritzei eta ezpelei uzten die tokia edertasun handiko inguruan. Jaitsieran aurkitzen ditugun bidegurutzeetan PR markak jarraitu behar ditugu, aurrerago aipatuko den batean izan ezik. Zati txiki batean, gure eskuinean, Lezaun ikusiko dugu. Gure helburutik gero eta gehiago urruntzen den zidorra jarraituko dugu. Peña Martín mendiaren harkaitzeko zulo handiak aurrez aurre ditugunean jaitsiera jarraitu eta bidegurutze argi batera iritsitakoan, **PRa** (Iturgoien herrira baitoa eta) **UTZI** eta eskuinera biratuko dugu bide berritik Lezaunerantz jarraitzeko. Hasiera batean zertxobait gorantz doa baina gutxira jaisten segituko dugu. Gure ezkerrean Aldaia (962 m) mendiaren maldak altxatzen dira. Eskuinean berriz, Arbioz inguruko haitzen ondotik pasatuko gara. Bidea zabalagoa da, Arbioz erreka eta ate metaliko bat pasatu eta hormigoizko pistatik gora Lezaungo kaleetara helduko gara.



EN UNA DELICIA DE PAISAJE POR LOS HAYEDOS, RASOS Y ROBLEDALES DE ANDIA...

Recorrido: Goñi – Ikomar – Trinidad de Iturgoien (1227 m) – Mugaga (1208 m) – Lezaun

Goñi (878 m) – Collado de Bixkarluz (1127 m) - Bordas El Pelotón (1007 m).- Comenzaremos la travesía por el amplio camino que parte en la parte alta de Goñi junto a la antigua iglesia San Ciriaco. El camino toma dirección noreste. Al llegar a un paso canadiense en el paraje de Mustillogorri encontraremos un cruce de caminos. Seguiremos hacia la izquierda por un camino antiguamente asfaltado, actualmente en mal estado. Frente a nosotros tenemos las laderas y hayedos de Trekua. Siguiendo este camino llegamos a humilde ermita de San Miguel, que se asoma entre las hayas sobre Goñi. Junto a ella termina el asfalto.

Nos adentramos en el hayedo por un antiguo camino empedrado y rápidamente alcanzamos el collado de Bixkarluz. Superamos la alambrada que nos cierra el paso, continuamos el camino que desciende suavemente por el hermoso hayedo y llegamos a un pequeño llano con una balsa.

Giramos hacia la izquierda bordeando la balsa, continuando el suave descenso por el Barranco de Ingiri. Llegamos junto a una gran borda en ruinas. El hayedo cede protagonismo a los amplios rasos de Andia. Ahora tenemos que seguir hacia la derecha, pronto llegamos al conjunto de ruinas de las bordas de Urdanotz. Seguimos el estrecho sendero que discurre cerca del alambrado que esta a la derecha, y que en ocasiones debido a la abundancia de espinos debemos superar por la ladera. Llegamos al conjunto de ruinas de las bordas El Pelotón. Tanto las ruinas de las bordas de Urdanotz como las de El Pelotón no dan una idea de la importancia y el esplendor de la actividad pastoril que existió en la sierra de Andia en épocas anteriores.

Bordas el Pelotón (1007 m) – Ikomar (1027 m) - Trinidad de Iturgoien (1227 m).- Seguimos el camino, ahora más amplio, hasta llegar a la borda Cofradía, (edificación pastoril circular). Junto a ella se encuentran las ruinas de otra borda de grandes dimensiones.

¡¡¡ATENCIÓN!!!. En este lugar dejamos el barranco de Ingiri, cruzamos la puerta metálica que hay junto a las bordas y ascendemos directamente por la pendiente, dejamos una chabola a la izquierda y seguimos el ascenso, ahora nos dirigimos hacia la solitaria chabola que hay sobre la ladera a nuestra derecha. Alcanzamos el lomo de la ladera y divisamos la vaguada y la balsa de Ikomar.

Por el camino conocido como "camino de Ingiri" descendemos suavemente por los rasos hacia la balsa. Bordeamos la balsa por la izquierda y subimos el pequeño repecho que hay junto a ella. Ahora ascendemos suavemente hacia la izquierda por la pequeña vaguada que se abre ante nosotros. Delante se elevan los Altos de Trinidad. Al llegar a un pequeño llano continuaremos la ascensión por la pequeña vaguada de la izquierda hasta alcanzar el collado superior. A nuestra espalda se abren los amplios rasos de Andia, en el horizonte se eleva la muralla de Beriain y la Sierra de Satrustegi.

En el collado giramos hacia la izquierda y tomamos el sendero que asciende a los Altos de Trinidad. Llegamos a la cima Caballero, rodeada por un murete que protege a ganado y caminantes. Aun nos queda un poco por ascender para estar la cima de Trinidad de Iturgoien y su ermita (1127 m). Esta amplia cima y la ermita se hallan en el Sur de la Sierra de Andia, dominan los rasos y las tierras de Lezaun y Deierrri.

Trinidad de Iturgoien (1227 m) – Mugaga (1208 m) – Lezaun (822 m).- Desde Trinidad de Iturgoien descendemos al collado que se encuentra al Sureste y ascendemos por la ladera que tenemos enfrente. Siguiendo las marcas de PR entre algunas hayas y por terreno cárstico sin apenas desnivel llegamos al vértice geodésico y el buzón de Mugaga (1208 m).

Descendemos siguiendo las marcas de la PR. Al comienzo se sigue dirección Sur, pero cuando la ladera se hace más pronunciada el sendero gira en dirección SE, dejando un poco más abajo a la derecha una balsa. Descendemos hasta la amplia pista y a nuestra izquierda en una cerrada curva tomamos el camino balizado que desciende por la vaguada. Hay que seguir las marcas de la PR, al comienzo discurre entre hayas. El camino se torna sendero, las hayas dejan paso a los robles y al boj, en un paraje de gran belleza. En los cruces que hallamos durante el descenso seguimos las marcas PR, menos en uno que cita más adelante. Durante un corto tramo vemos a nuestra derecha Lezaun. Seguimos el sendero que parece que cada vez se aleja más de nuestro destino. En el momento que tenemos frente a nosotros los resaltes rocosos con grandes oquedades de Peña Martín seguiremos descendiendo y al llegar a un cruce muy claro de senderos **DEJAMOS la PR** (se dirige a Iturgoien) y giraremos a la derecha para seguir el nuevo camino dirección a Lezaun. Al comienzo se asciende ligeramente, pero al poco tiempo continúa el descenso. A nuestra izquierda se elevan las laderas del monte Aldaia (962 m). A la derecha pasamos junto a unas peñas en el paraje de Arbioz, el camino se hace más amplio, cruzamos la regata de Arbioz, pasamos una puerta metálica y por una pista de hormigón ascendemos a las calles de Lezaun.